

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

.....

2. 2. ELKARBIZITZA- BEHATOKIA (EB). FUNTZIOAK

- a) Elkarbizitza Plana egin, osatu eta abiarazi nahi dugu, eta, gero, jarraipena eta ebaluazioa egin horretaz.
- b) Estamentu guztien partaidetza aktiboa bermatu nahi dugu, bereziki, ikasleena¹
- c) Pertenentzia-sentimendua sustatu nahi dugu estamendu guztiengan, batez ere, ikasleengan.²
- d) Aukera- eta tratu-berdintasuna zaindu nahi dugu, prozesu- eta harreman-arlo guztietan.
- e) Hezkuntza Komunitate guztiari harreman positiboak sustatzen laguntzeko jarduerak proposatu nahi ditugu: topaketak, jaialdiak, desioak eta sentimenduak adierazteko kartelak, antzerki-taldeak, gorputz-adierazpenerako tailerrak, erlaxazioa, hainbat gairi buruzko eztabaidak, gatazkak konpontzeko gaitasunak eta komunikazio-ahalmenak landu...
- f) Guztion artean elkar zaintzeko kultura garatzen lagundu nahi dugu; norberaren burua eta gainerakoena zaintzeak aberastasun- eta poztasun-iturri izan behar du denontzat.³
- g) Ikastetxearen elkarbizitza-arauak aztertu behar dira (agerikoa: AIA... eta ezkutukoa: idatzita ez dagoena); araudiaren diagnostikoa egin eta hobetzeko neurriak ere inplementatu behar dira.
- h) Harremanak hobetzeko bidean, proposamenak, egonezinak eta iradokizunak jaso nahi ditugu estamentu guztiengandik, era horretara, gatazkak konpontzen eta elkarbizitza osasuntsua eratzen ikasteko.
- i) Eguneroko martxan sortzen diren beharrak eta gatazkak kudeatu eta bideratzeko ekintza-protokoloak proposatu nahi ditugu.
- j) Berdinen arteko balizko tratu txarrak edota indarkeriazko kasuak detektatu nahi ditugu (triptikoak dibulgatu, galdeketak, soziogramak, testak...) eta adostutako neurriak lehenbailehen martxan jartzen direla bermatu.
- k) Informazioa jaso nahi dugu, beste arlo batzuetan elkarbizitza nola garatzen den jakiteko, eta gure inguruan diren baliabideak eta ekimenak zein diren ezagutzeko.
- l) Lankidetzak sustatu nahi dugu inguruko beste erakunde, organizazio eta entitate batzuekin, elkarbizitza positiboa eta kooperazio-kultura sustatzeko.

¹ Ikasleek parte hartzea funtsezkoa da eskola-giroan. Hori horrela dela ikus liteke ikerketa askotan. Ikasleen partaidetza zenbat eta txikiagoa, gatazka-maila orduan eta handiagoa izaten da, eta, alderantziz, partaidetza zenbat handiagoa, orduan eta arazo gutxiago. Watkins y Wagner 1991.

² Pertenentzia- eta identifikazio-sentimendu hori garatu nahi izanez gero, oso lagungarria izango da ikasleak zentroaren funtzionamendu-dinamikan integratzea, haien iritziak entzutea, erabakiak hartzeko unean haiei galdetzea eta ikasleak kide aktibotzat hartzea. *Luis Barriocanal 2000.*

³ Horrela, eskola giroa eta ikasleen arrakasta pertsonal nahiz akademikoa hobetuko da eta baita ere irakasle eta familiena, hau da, Eskola komunitate osoarena.

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

- m) Behatokiak egin behar duen lana plan batean jaso behar da, eta, ondoren, horren ebaluazioa eta urteko memoria egin behar dira.